



## Hamasei urte gartzelan

© Atzo 👤 JJ Agirre 📍 Euskal Herria 💬 7

Ez bat, ez bi. Hamasei urte egin zituen kartzelan Karlos Gorrindo Gernikarrak, ETAkide jardun izanaren ondorioz. 1980an atxilotu eta 1996an askatu zuten. Literatur lan autobiografiko gordina, biziki interesgarria osatu du Gorrindok. Esango nuke, orrialderik orrialde, guztietan txertatu duela hausnarketa edota gertakari interesgarriren bat. Bere buruaz jardun du luze, zabal eta sakon, baina baita burkideez ere, kide zuen erakundeaz, presoek elkarbizitzaz, abokatuekiko harremanaz, kartzelako bizimodu zurrun eta astunaz, etsaiaren presio eta zigorrez... Eta uneoro, "amildegian behera ez erortzeko" lanak. Bere egia eman du argitara Gorrindok, ausart bezain eskuzabal. Narrazio erakargarri eta mamitsu askoa osatu du horrela. Ni neu, hasi eta buka harrapatu nau. Gure herriaz kezka duen ororentzat gomendagarria oso.



## Egilea



JJ Agirre

ELAkide euskaltzalea (eta abar).

## Sarrera berriak

Arratsean saioko elkarrizketa hemen:

[eitb.eus/irratia/funanbulistaren-beldurraz-karlos-gorrindo](http://eitb.eus/irratia/funanbulistaren-beldurraz-karlos-gorrindo)



Nola zaude?



1 boz



0 boz



1 boz



2 boz



10 boz

📌 bizi, ETA, Gorrindo, kartzela, libre



JJ Agirre

ELAkide euskaltzalea (eta abar).

◀ [Birusaren ostean](#)

[Indarrak alferrik xahutu gabe](#) ▶

## 7 pentsamendu “Hamasei urte gartzelan”-ri buruz



Patxi 🕒 Atzo

Liburu hau azkar irakurri nuen, arratsalde baten. Korritzen duen liburu bat da ongi idatzia dagoelako. Ohar batzuk hartu nituen, beti edo gehienetan egin ohi dudak bezala, eta ahaztu nuen.



Artearen mailutasuna



Iñaki Salvador: "Jazzaldirik gabe, akaso ez nintzateke musikaria"

Sentsazio triste samarra utzi zidalako ahaztu dudala uste dut. Tristura saihestera jotzen dugu. Zergatik sentsazio hori? Gaztetasunean, guardia zibil eta polizia espainiarren errepresio basatiari aurre egiteko, Euskal Herri askea eta euskalduna lortzearen erabaki gogor-heroikoa hartu zuen, eta hamasei urtez sufrimendu luzea eraman behar izan du gorputz-garunean; bere poztasun eta gorabehera animiko eta emozionalekin, baina sofrikarioa.

Kazetaritza egin zuen kartzelan, euskara hobetu zuen; hots, ez zuen denbora alferrik galdu, baina, hamasei urtez, oso besteren mendean ibili beharra izan zuen liburu autobiografiko-literariotik juzgatzerara: presoek kolektiboa, abokatuak, erakundea...

Hona lagin batzuk.

1. Langraizeko kartzelan gestoretako ordezkari batekin izandako elkarrizketa 90eko hamarkadaren erdialdera:

“-Zer moduz hemen, Juankar, Euskal Herrian?

-Espainiako enbaxadan, egia esateko -erantzun nion pozik.

-Zer moduz damutuekin?

-Hemen ez dago damaturik, erakundea utzi duten lagunak baino.

-Traidoreak orduan.

-Traidoreak? Hemen denok gara traidore, erakundetik bertatik hasita lehendabizikoz.

-Ez dizut ulertzen, Juankar. -Urduri sumatu nuen nire hitzak entzunda.

-Gure jatorrizko printzipioei traizio egin zion lehena erakundea izan zen. Hau da, KAS alternatiba inposatu egiten zen hasieran. Negoziatu gero, hurrengo fase batean. KAS alternatiba lortzeko ezinbesteko estrategia indar metaketa zen.

Estrategia hau bazterrera lagata, eta indarren atomizazioa aukeratu zuen erakundeak helburuak lortzeko. Eta zer gertatu da? Ba estrategia hori abian jarrita, KAS alternatiba komuneko zulotik jaurtikita, egun erakundea bera bilakatu dela helburu. Bada, orduan, bere buruari traizio handiagorik egin dionik?

-Zuek eutsi gogor hor barruan. Aholku edo agindu, ez nekien zelan interpretatu berba haiek. Zuen borrokak iraunaraziko du kalekoa.

-Bada, onak gaide, hortaz -erantzun nion etsita. (254 or.)



Indurain, orain 25 urte



22garren "Hatsaren Poesia" eguna iragan igandean

2. Herrera de la Manchako espetxean, lehenago egondako Puerto de Santa Mariakoan egindako gose-greben atarramentuarekin-eta deskontent, izandako lehen errebelamendu pertsonala honela kontatzen du:

“Pozak eta alegantziak alde batera utzi behar izan nituen, baina, hurrengo egunean. Norberaren sinesmenaren kontra egiteak kontzientziari egin ahal zitzaion ukaziorik handienaren sentsazioarekin esan nion ezetz Herrerako kolektiboak erabakitako borroka prozesuari. Sentimenduak gailendu zitzaizkidan beste ezeren gainerik erabaki hura hartzeko. Amorrua sentitzen nuen, deskonfiantza, inposizioa ordura arte borrokarik egitea zer zen ez zekitenen aldetik. Sentimenduek agindu zidaten borrokarik ez egiteko, pentsamendu ideologikoaren eta kontzientziaren gainerik” (130 or.)

Pentsamenduak eta sentimendu horretxek bultzatu zuen askatasunik eta itxaropen politikorik gabeko egoera hartatik urruntzera. Ez da damutu, jakina!

➔ Erantzun



**Kabe** ⌚ Atzo

la hunkitu naiz. Ea egunen batean irakurtzen dudan antzeko bertze panegiriko bat, baina ez kartzelan 16 urte eman dituen preso-ohi-ETAkide-guay bati buruz, ezpada ume bat bortxatu duen preso-ohi bati buruz, edo ezkerreko manifestari bat hil duen ultraeskuindar preso-ohi bati buruz, edo milioiak sakeleraturik ehundaka langile kale gorrian utzi zituen eskrupulurik gabeko enpresari preso-ohi bati buruz. Ah, barkatu, ahaztua nengoen: krimen batzuk bertze batzuk baino xurigarriagoak zaizkigu, eta egileak ere sinpatikoagoak, gutarrak diren. JJ, sindikatukide zaitut, baina halakoak irakurtzen dizkizudalarik, urrun, arras urrun ikusten zaitut.

➔ Erantzun



**16 urte** ⌚ Atzo

EZ ditu 16 urte kartzelan egin espainian ez ezkerreko manifestari bat hil duen ultraeskuindar preso-ohi batek, edo milioiak sakeleraturik ehundaka langile kale



Indarrak alferrik xahutu gabe

[↪ Erantzun](#)**JJ** ⌚ Atzo

Liburua irakurri beharko zenuke akaso, Kabe.

[↪ Erantzun](#)**JJ** ⌚ Atzo

Eta "Kobe"... oso itsusi dago, norbere izen-abizenekin diharduenari, goitzen baten atzean ezkutatuta kargu hartzea.

Osasuna beti ere.

[↪ Erantzun](#)**Kabe** ⌚ Atzo

Ez, JJ, ez dago itsusi, errespetuz egiten den bitartean. Arrazoi beragatik ez dago itsusi norbait zoriontzea, ezizenez bada ere.

[↪ Erantzun](#)**A** ⌚ Atzo

Lehengoan liburutegi batean ikusi nuen, baina azkenean beste baten aukera egin nuen. Laster erosiko dut, badut eta gogoia hasi eta buka egiten den liburu bat irakurtzeko.

[↪ Erantzun](#)

## Utzi erantzuna

Zure e-posta helbidea ez da argitaratuko. Beharrezko eremuak \* markatuta daude

Izena \*

E-posta \*

E-posta \*

Webgunea

Webgunea

Iruzkin

Iruzkin

Bidali iruzkina

ZUZEU

ZUZEU

Informazioa, iritzia eta  
eztabaida



